

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

PASAIKO UDALA

Pasaiako udaleko hirigintza eta ingurumeneko Kontseilu Aholkulariaren udal erregelamendua. Behin betiko onespena.

PASAIKO UDALA

Iragarkia

Pasaiako Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Gaietarako Aholku Batzordea arautzen duen udal-araudia onetsiz Udal Batzarrak 2007ko abenduaren 26an hartu zuen erabakia jendaurrean egon den arauzko epean inolako alegaziorik aurkeztu ez denez, aipatu erabakia behin betikotzat jo da eta testu osoa argitara eraman, toki-Jaurpideko Oinarriak Arauzkotzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak bere 70.2 artikuluan adierazten duena beteaz.

Pasaia, 2008ko otsailaren 25a.—Maidier Ziganda Población, Alkate-Andrea.

(544) (2178)

PASAIKO UDALEKO HIRIGINTZA ETA

INGURUMEN GAIETARAKO AHOLKU BATZORDEA ARAUTZEN DUEN UDAL-ARAUDIA

ZIOEN AZALPENA

Herritarren nortasuna libreki gara dadin laguntzeko botere publikoei dagokie gauzak erraztea haiek politikan, ekonomian, kulturen eta gizarte-eginkizunetan parte har dezaten. Herritarrek afera publikoetan, zuzenean edo ordezkarien bidez, parte hartzeko eta erabakitzekeo duten eskubidea arlo guztietan adierazi eta sustatu behar da, bai gizabanakoei dagokienez eta baita haiek osatzen dituzten taldeei dagokienez ere. Ildo horretan kontuan hartzekoa da Udal Antolaketa Araudiak 48. artikuluan xedatzen duena: «Udalbatzak, berak egiten dituen jardueri buruz, informazio ahalik eta zabalena emango du, eta herritarrak bultzatuko ditu udalerriko bizitzan parte har dezaten, betiere udal organoei dagokien erabakiak hartzeko ahalmena murriztu gabe».

Hirigintzaren arloan, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, herritarren parte hartzeko bideak errazteko asmoz 109. artikuluan xedatzen du Hirigintza-plangintza behin betiko onartzeko eskumena duten udalerrri guztiak daudela behartuta Udaleko Hirigintza eta Ingurumen Gaietarako Aholku Batzorde bat eratzea. Batzorde horrek, lehen adierazitako helburuak lortzen ahalegintzeaz gain, xedetzat du herri erakundeari laguntzea hirigintza antolamenduko tresna nagusiak formulatzen eta onartzen, batez ere, Plan Orokorren zehaztapenei buruzkoak. Herritarrek hirigintzako informazioa izateko duten eskubidea bermatzeko ekintzen barruan sartzen da, eta horretarako udalaren hirigintzako plangintzaren eta lurralde-antolaketa eta sektore-antolaketaren arteko koherentzia eta osotasuna segurtatzen da.

Paraleloki uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ingurumen gaietan informaziorako, parte hartze publikorako eta justiziarako eskubideak arautzen ditu. Lege horren xedea da, besteak beste, «ingurumenean zuzen edo zeharka eragiten duten gaietan neurriak hartzeko prozeduretan parte hartzeko» eskubidea arautzea, erabaki haien lanketa eta onarpena Herri Administrazioei dagokienean.

Bestalde, Lege horren 110. artikulua zehazten du Udal Araudiaren bitartez onartu behar direla Batzordearen eraketa eta haren oinarriko ezaugarrien definizioa. Organo horrek izaera osagarria du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 20.1 artikuluan ezarritako oinarriko zehaztapenen osagarria. Artikulu horrek 2. paragrafoan xedatzen du autonomia erkidegoek ezarri ahalko dutela toki araubideari buruzko legeen bitartez antolaketa osagarri bat, hots, gorago aipatutako oinarrikoaren osagarria.

Lege horrek barne zuzenbidera aldatzen du Europar Parlamentu eta Kontseiluko 2003/35/CE Zuzentaraua, 2003ko maiatzaren 26koa, zeinen bidez neurriak ezartzen diren herritarrek parte har dezaten ingurumenarekin zerikusia duten zenbait egitasmo eta programetan, eta zeinen bidez aldatzen diren, herritarren parte-hartzeari eta justiziarako sarbideari dagokionez, 85/337/CEE Zuzentarauak eta 96/61/CE Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoaren Hitzarmenaren ondorio dena, informaziorako sarbidea, erabakiak hartzean herritarren partaidetza eta ingurumen-gaietan justiziarekiko sarbidea arautzen duena, Aarhusen egina, 1998ko ekainaren 25ean.

Helburu horrekin Udal Araudi honek proposatzen du Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea eratzea eta haren funtzionamendua arautzea. Aholku emailea izango da eta kide anitzekoa, eta partaidetza soziala ahalbidetuko du hirigintzako plangintza egiteko orduan eta garapen iraunkorra bultzatzeko eta bideratzeko garaian. Araudiaren bidez erabakitzen dira halaber Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku-batzordearen oinarrizko egitura, eginkizunak eta araubide juridikoa, kontuan izanik kide anitzeko organoa dela eta era horretako organoentzat azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 22. artikuluan aurreikusten direnak (Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluan xedatutakoaren arabera ematen dugu Araudi hau:

I TITULUA

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN GAIETARAKO AHOLKU BATZORDEA ERATZEAZ ETA HAREN EGINKIZUNEZ

1. artikulua. Hirigintza eta Ingurumen Gaietarako Aholku Batzordearen sorrera.

1. Pasaiako Udalerrian Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea sortzen da lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

2. Eratzen da hirigintza arloko informazioa eztabaidatu eta adostasunetara iristeko espazio iraunkor gisa, eta udala, gizarte-eragileak, eragile ekonomikoak, ingurumen-eragileak eta, oro har, herritarrak bilduko ditu.

3. Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea Pasaiako Udaleko partaidetza organo osagarri bat da eta xedetzat du herritarrei eta haiek osatutako talde eta elkarteei aukera ematea udalerriko gobernu-organoei hartzen dituzten erabakietan lagundu dezaten.

2. artikulua. Atxikitzea.

Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea Hirigintza eta Hiri Berritze arloan eskudun den udal-arloari atxikitzen zaio.

3. artikulua. Izaera juridikoa.

Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea kide anitzeko organo bat da, azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenen, arautzen direnetakoa.

4. artikulua. Eginkizunak eta xedeak

1. Aholku Batzordearen helburua da udalak, bere kabuz edo bestek eskaturik, hirigintzako antolaketaz aurkezten dizkion zehaztapenez, galderak, txostenak eta proposamenak egitea.

Araudi honen 14. artikuluan jasotzen diren hizkuntza eskubideak bermatzeko, Aholku Batzordeko kideek aztertu behar dituzten txosten edo agiri guztiak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira.

2. Aholku Batzorde honek eginkizun hauek beteko ditu zehazki:

a) Jakingo du hirigintzako antolaketari buruz udalean zer azterketa, programa, arau eta jarduera-ildo nagusi dauden, eta haiei buruz txostenak egingo ditu. Lanak hasi aurretik, zer asmo dauden azalduko zaio eta haste-hastetik bermatuko

da haren partaidetza.

- b) Aztertuko ditu hirigintzako antolaketari buruz udalari beste instantzia batzuetatik heltzen zaizkion ekimen, iradokizun, proposamen edo hautabideak, eta haiei buruzko txostenak egingo ditu.
 - c) Informazioa lortuko du interesatzen zaizkion gaiez, hots, edozein egitasmo edo hirigintzako antolaketa tresnari buruz, oro har, eta batez ere Hirigintzako Ondare Katalogoari eragiten dioten egitasmo edo antolaketa tresnei buruz, eta, hala balegokio, haiei buruzko txostenak egingo ditu.
 - d) Informazioa lortuko du hirigintzaren arloan, eta zabaldu egingo die inplikatuak gerta litezkeen herritar elkartei.
 - e) Herritarren partaidetza sustatuko du, eta bere alea jarriko du hirigintza-plangintzako agiriei erantsitako Herritarren Partaidetza Programan egindako aurreikuspenak hobeki bete daitezen.
 - f) Udalari aholkua eta laguntza emango dio herritarren partaidetzari buruz, eta hiri iraunkortasunaz egiten diren azterlan, txosten eta proposamenetan.
 - g) Elkarteen eta erakundeen arteko elkarlana eta konpromisoa bultzatuko ditu proposatzen diren hirigintzako egiturazko antolaketaren zehaztapenei buruz.
 - h) Kutsaduraren prebentziorako eta kontrol integraturako legerian arautzen diren baimenak emateko tramitatzen diren administrazio-prozedurei buruzko txostena eta azterlana, ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko legerian arautzen diren ingurumen-eraginaren deklarazioak, eta halaber ur-legerian ingurumenarekin oro har zerikusia duten egitasmo, programa eta proiektuek dituzten ondorioei buruzko ebaluazioari buruzko legerian aurreikusten diren plangintza-prozesuetan, eta zehazki gai hauetan:
 - a.— Uren babesa.
 - b.— Zarataren aurkako babesa.
 - c.— Lurzoruaren babesa.
 - d.— Eguraldi kutsadura.
 - e.— Landa eta hiri lurraldearen antolaketa eta lurzoruaren erabilera.
 - f.— Izadiaren kontserbazioa, aniztasun biologikoa.
 - g.— Mendiak eta baso ustiapenak.
 - h.— Hondakinen kudeaketa.
 - i.— Produktu kimikoak, pestizidak eta biozidak.
 - j.— Bestelako igorpen, isurketa eta ingurumenean substantziak askatzea.
 - k.— Ingurumen eraginaren ebaluazioa.
3. Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordeak egiten dituen proposamenak edo aukerak gomendioak izango dira udal gobernuko organoentzat, eta proposamen edo aukera horiek aldatzen edo baztertzen badituzte, erantzun arrazoitua eman beharko diote batzordeari, bai udal organoek eta bai beste administrazioek ere, udalarentzat nahitaez bete beharreko eskumenak badituzte.
4. Nolanahi ere, udalak hirigintzako dokumenturen bati behin betiko onespena ematen badio, eta agiri horretan Aholku Batzordeak proposatutakoetatik desberdinak diren aukerak jasotzen badira, justifikatu egin beharko ditu.
5. artikulua. Aholku Batzordearen eginkizunak. Txostenak egitea.

1. Aholku Batzordeak udalak lantzen edo ezartzen dituen hirigintza arloko plangintza eta jarduneko tresna, azterlan, programa, irizpide eta jardun-ildo guztien berri izango du. Horrez gain, egiturazko antolaketa eragina duten plangintza-tresnak lehen aldiz formulatzeko, tresna horiek guztiz edo zati batean berraztertzeke, edo tresna horietan aldaketa zehatzak egiteko espedienteetan txostenak egingo ditu, kasu guztietan eta nahitaez.

a) Plan Orokorren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egiturazko antolaketa lehen aldiz formulatzeko edo guztiz edo zati batean berraztertzeke espedienteetan, nahitaezkoa izango da Aurrerapen-dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea, eta halaber plangintza horien hasierako eta behin-behineko onespeneko dokumentuei buruzkoa ere.

b) Plan Orokorren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egiturazko antolamendua zati batean aldatzeko espedientei dagokienez, nahitaezkoa izango da txostena egitea hasierako onspena jaso behar duen dokumentuaren edukiari buruz. Aurrerapen-dokumentua baldin badago, hari buruzko txostenak ordezkatu ahal izango du aurrekoa.

2. Era berean, Aholku Batzordeak beste hirigintza-antolamenduko plan batzuen edo beste hirigintza-tresna batzuen espediente guztiak jasotzeko eta aztertzeke aukera izango du, baldin eta zinegotzi ez diren batzordekideen laurden batek gutxienez hala eskatzen badu. Kasu horretan, txostena egiteko epea bat etorriko da hasierako onspenaren ondoren espediente horrek jendaurrean egon beharko duen epearekin.

3. artikulua honen 1. atalean aipatzen den edozein espedienteri hasiera ematen zaionean, horren berri emango dio udalak batzordekideei bere kabuz, jendaurrean jarri aurretik.

4. Aholku Batzordeak egin behar dituen arauzko txostenak plangintzaren Aurrerapena jendaurrean jartzeko epea amaitu eta hilabeteko epean egin beharko ditu, eta Aurrerapenik bideratuko ez balitz, hasierako onarpena jaso duen dokumentua jendaurrean dagoen epean, jasotako iradokizun edo alegazioak aintzat harturik.

6. artikulua. Eraginkortasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioa

Aurrez Aholku Batzordeak txostena edo azterlana egin ondoan, plangintza-zehaztapen bat behin betiko onartzen denean, ez da berriz aztertuko Batzordean, garapen plangintzako tresna baten txostena egin behar denean edo aipatutako zehaztapenaren egikaritze proiektu baten azterlana egitean.

Aurrez ezarri zen plangintzaren aldaketa tramitatzean bakarrik egin ahalko da planteamendu berria.

II. TITULUA

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN GAIETARAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

7. artikulua. Osaera.

Berdintasunaren Legeak parekidetasunari buruz ezarritako irizpideak aintzat hartuta, kide hauek osatuko dute Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea:

1. Lehendakaria: Alkatea. Honek Udalbatzako edozein zinegotziren esku utz dezake kargu hori.

2. Lehendakariordea: Hirigintza eta ingurumen arloan eskumena duen udal saileko zinegotzi titularra izango da edo beste edozein zinegotzi, arlo horretako eginkizunak eskuordetu gabe baleude. Lehendakariak bezala, lehendakariordeak ere Udalbatzako edozein zinegotziren esku utz dezake kargua. Lehendakari kargua hutsik badago, edo bilkuran ez bada edo gaixorik badago, lehendakariordeak ordezkatu du, hark besteren baten esku utzi ez badu.

3. Zinegotzi batzordekideak:

a) Tokiko Garapen eta Merkataritzako zinegotzi titularra.

- b) Demokrazia Parte-hartzaileko zinegotzi titularra.
- c) Berdintasuneko zinegotzi titularra.
- d) Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztietako ordezkari bana, salbu eta alkatearen, lehendakariordearen eta aholku batzordekide diren zinegotzi ordezkarien alderdikoak.

4. Zinegotziak ez diren batzordekideak:

- a) Udal hauteskundeetara aurkeztu eta ordezkaritza lortu ez duten alderdi edo elkarte politikoko ordezkari bana.
- b) Pasaiaiko auzotarren elkarteetako ordezkariak, lau barrutietatik bina; beraz, zortzi.
- c) Talde ekologista edo ingurumen arloko elkarteetako bi kide; ahal dela, udalerrikoak izan behar dute.
- d) Herriko ikastetxeetatik ordezkari bana.
- e) Portu Agintaritzako bi kide.
- f) Izaera orokorreko sindikatuetakoa ordezkari bat; ahal dela, udalerrikoa izan behar du.
- g) Arrantzarekin zerikusia duen sindikatu bateko ordezkari bat; ahal dela, udalerrikoa izan behar du.
- h) Arantza Kofradiako ordezkari bat.
- i) Ahalmen urrikoen elkarteetako bi ordezkari; ahal dela, udalerrikoak izan behar dute.
- j) Dendarien elkarteetako bi kide.
- k) Herri hedabideetako bi kide.
- l) Pasaiaiko emakumeen elkarteetako bi kide.
- m) Gazte elkarteetako bi kide.
- n) Aurreko ataletan ordezkatuak ez dauden kultur, kirol, gizarte arloetako barruti bakoitzeko ordezkari bana.
- o) Ondarearen kontserbazioan interesa duten elkarteetako kide bat; ahal dela, udalerrikoak izan behar du.
- p) Hiri mugikortasuna hobetzea helburu duten elkarteetako kide bat; ahal dela, udalerrikoak izan behar du.
- q) Edozein dela bere jatorria, etorkinen eskubideen aldeko lana egitea helburu duen elkarteetako ordezkari bat; ahal dela, udalerrikoak izan behar du.
- r) Antolaturik ez dauden herritarretatik, udal barruti bakoitzetik kide bat, gaian duten interesagatik edota jakituriagatik Aholku Batzordean beren ikuspuntua ager dezaten.
- s) Udalerriko jubilatuen bi ordezkari.

5. Idazkaria: Hirigintzaren arloan eskumena duen saileko udal-funtzionario arduraduna, edo hark bere ordezkari bat.

izendatzen duen funtzionarioa. Idazkariari Aholku Batzordeari laguntzea eta aholkuak ematea dagokio, lehendakariaren zuzendaritzapean.

6. Era berean batzordekide izango dira, eta botorik ez baina hitza izango dute, hirigintzako antolaketan ardura edo partaidetza duten udal teknikariek eta hirigintzako planak idazteko ardura dutenek.

Aholku Batzordekideek, lehendakariak eta lehendakariordeak boto eskubidea dute.

Aholku Batzordeak bere lana talde edo batzordeetan antola dezake landu behar dituen gaien arabera, hartara herritarren partaidetza indartzeko eta informazioa eta erabakiak herritarrengana hurbiltzeko.

8. artikulua. Aholku Batzordeko kideak izendatzea eta kargugabetzea.

1. Alkateak izendatuko ditu kideak, baina izendatzeko proposamena atal hauetan ezarritakoaren arabera egingo da:

a) Zinegotziak eskuordetze dekretuen arabera, alderdi politikoei proposatuta.

b) Gainerako ordezkariak:

a.— Ordezkaritza ez duten alderdi edo hautes elkarteetakoak, beraiek proposatuta.

b.— Elkarte edo erakunde ordezkariak, beraiek proposatuta.

c.— Herri elkarteak ez diren erakundeetako ordezkariak edo gizabanakoak izendatzeko alkateari zuzendutako proposamenak onartuko dira, eta Aholku Batzordeak osoko bilkuran erabakiko du haiek onartu ala ez.

2. Batzordekide izendatuak izan aurretik, pertsona horiek kargua onartu beharko dute.

3. Aholku batzordekide diren zinegotziek, nolana ere, Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean, batzordekide izateari utziko diote.

4. Gainerako batzordekideak lau urtez izango dira karguan. Dena den, kasu hauetan ere kargugabetu daitezke:

a) Espresuki uko egiten diotenean.

b) Epai irmoz kargu publikoa betetzeko ezgaitasuna adierazten bada, edo desgaitasuna kasuetan.

c) Aholku Batzordekide beren karguagatik direnean, kargu hori galtzean kargugabetuko dira.

d) Proposatutako zituen erakundeak kargutik kentzean.

5. Hutsik geratzen diren postuak izendatzeko erabili den modu berean beteko dira.

6. Batzordean ordezkaritza duten erakunde, elkarte edo alderdiei, ordezkariak izendatzerakoan, irizpide hauek kontuan hartzea proposatuko zaie:

a) Pasaiko auzo eta gizarte jardueran zer ibilbide izan duten.

b) Pasaikoak diren edo Pasaian bizi diren.

c) Parekotasun irizpideak kontuan hartzea.

9. artikulua. Kalte-ordainak.

Aholku Batzordekideek ez dute haien eginkizunak betetzeagatik inolako ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

III. TITULUA

AHOLKU BATZORDEAREN ORGANOEN EGINKIZUNEZ

10. artikulua. Hauek dira lehendakariaren eginkizunak.

1. Batzordearen eskumeneko gaietan indarrean dagoen legeria beteko dela bermatzea.
2. Batzordearen helburuak beteko direla ziurtatzea.
3. Batzordearen Osoko Bilkurak hartzen dituen erabakiak beteko direla zaintzea.
4. Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak erabakitzea eta gai zerrenda zehaztea.
5. Batzordearen Osoko Bilkurak onartzen dituen eskariak, errekerimenduak eta jarduketak dagokion udal-organora bideratzea.
6. Aztertzen diren gaien arabera, egoki iritzitako pertsonak gonbidatzea osoko bilkurara eta lan-batzordeen bilkuretara. Gonbidatu horiek hitza izango dute baina ez botoa.
7. Batzordeko lehendakariari berez dagozkion eginkizunak.
8. Esleitzen zaizkion bestelako eginkizunak.
9. Batzorde guztietan bermatu behar da lehendakariaren presentzia, bera azalduz edo haren ordezkari bat.
10. 7. artikuluan xedatu bezala, kideen hautaketa egiteko ahalmena.

11. artikulua. Osoko bilkurretan lehendakariak dituen eginkizunak.

1. Buru izatea, eztabaidetan moderatzaile aritzea, bileren martxa ona zaintzea eta, dagokionean, bidezko arrazoiak tarteko, bilerak etetea.
2. Bozketan berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoaren bidez erabakitzea.

12. artikulua. Lehendakariordearen eginkizunak.

Eginkizun nagusia lehendakariaren ordezkari aritzea izango du, hura ez dagoenean, kargua hutsik dagoenean edo gaixo dagoenean.

13. artikulua. Aholku Batzordearen Osoko Bilkura.

1. Osoko Bilkura da erabakiak hartzeko organo gorena.
2. Osoko Bilkurari dagokio:
 - a) Batzordearen lan-programa egitea eta bere jardueren artean lehentasunak ezartzea.
 - b) Bilkura-deialdiko aztergai guztiei buruzko iritzia ematea.
 - c) Beraren jarduerari buruz, Udalbatzari berriak eta aholkuak ematea.
 - d) Bidezkoa bada, aurreko osoko bilkuraren akta onartzea, eta hurrengoan aztergaietan sar daitezkeen gaiak proposatzea.
 - e) Batzordeko lehendakariak eskatuta, zenbait organo bereziki egingo dituzten txostenen berri izatea.
 - f) Aholku Batzordeari dagozkion eta beste organoren bati eman ez zaizkion bestelako eginkizunak.
 - g) Egokitzen jotzen bada, egiturazkoa ez den antolamenduko edozein dokumenturi buruz informazioa eskatzea.

14. artikulua. Idazkaria.

Idazkaria Batzordeko lehendakariaren zuzendaritzapean arituko da, eta eginkizun hauek izango ditu:

- a) Osoko bilkurarako deialdiak egitea eta horiekin batera eguneko aztergaiak eta aurreko bilkuraren akta bidaltzea.
- b) Batzordeko osoko bilkuretan parte-hartzea, hitzarekin baina botorik gabe, bilkuren akta jasotzea eta lehendakariarekin batera akta horiek sinatzea.
- c) Artxiboko eta erregistroko lanak egitea eta idazkari izateagatik dagozkion bestelako eginkizunak.

15. artikulua. Batzordekideen eskubideak.

Batzordekideen eskubideak hauek dira:

1. Osoko bilkuretan ordezkaritza izatea.
 2. Osoko Bilkurak hartutako erabakiak betetzeko egingo diren jardueren berri izatea.
 3. Batzordeko aktak eta agiriak eskura izatea.
 4. Batzordean ekimenak eta interesak aurkeztu eta defendatzea.
 5. Batzordearen bilkuretan hitzarekin eta botoarekin parte hartzea.
 6. Proposamen bat egiteko informazioa behar izanez gero, Batzordearen bidez Udalbatzaren zerbitzuetan dagoen informazioa eskatzea.
 7. Araudi honen arabera edo indarrean dagoen legeria aplikagarriaren arabera izango dituen gainerako eskubideak.
 8. Euskararen erabilera normaltzeko Udal Ordenantzaren 4. artikuluan jasotzen diren hizkuntza eskubideak aitortzen zaizkie.
- a) Udalarekin eta haren mendeko erakunde guztiekin ahozko edota idatzizko harremana euskaraz izatea.
 - b) Udaleko edozein bileratan euskaraz egiteko.

16. artikulua. Batzordekideen betebeharrak.

Batzordekideen betebeharrak dira:

1. Osoko bilkuretan parte-hartzea eta hartutako erabakiak betetzeko batzordeak bultzatutako jardueretan laguntzea.
2. Batzordearen garapenaren eta sustapenaren alde egitea.
3. Baimenik gabe batzordearen izenean ez aritzea.
4. Araudian jasotakoa errespetatzea eta betetzea.
5. Erakunde, elkarte edo taldeen kasuan, beraien estatutuetan egiten diren aldaketen berri ematea udalari, balitekeelako aldaketa horiek eragina izatea haien udalaren izendapenean.
6. Ordezkeri den kidean edo haren elkartearen helbidean gerta daitezkeen aldaketen berri ematea.

7. Araudi honen arabera edo indarrean dagoen legeria aplikagarriaren arabera esleitu ahal zaizkien beste betebeharrak batzuk.

IV. TITULUA

JARDUTEKO ARAUBIDEA

17. artikulua. Bilkurak.

1. Aholku Batzordearen Osoko Bilkura ohiko batzarrean bilduko da hiru hilean behin, eta bere eginkizunak betetzeko beharrezko ikusten duen guztietan. Horrezaz gain, lehendakariak proposatuta edo batzordekideen herenak eskatuta, ezohiko batzarrean bilduko da.

2. Aholku Batzordearen deialdia ohiko batzarra baino hiru egun lehenago bidaliko zaie batzordekideei; ezohiko bilkurak direnean, berriz, bi egun lehenago, gai-zerrendarekin batera eta eztabaidarako behar den dokumentazioarekin.

18. artikulua. Quórum-a.

1. Osoko Bilkura balio osoz eratuko da lehenengo deialdian, batzordekideen erdia gehi bat daudenean, bertan presente edo boto ordezkatuarekin.

2. Hala gertatzen ez bada, batzordea bigarren deialdian eratuko da, ordu erdi beranduago, batzordekideen herena bertan bada. Lehendakariak eta idazkariak bertan egon beharko dute nahitaez. Quorum hau bilkura osoan mantendu behar da.

19. artikulua. Eztabaidak

1. Batzordeko lehendakariak zuzenduko ditu batzarrak eta eztabaidak eta behar diren neurriak hartuko ditu haiek egoki bidera daitezen.

2. Araudi honen 14. artikuluan jasota geratu den bezala, Aholku Batzordekideei bilkuretan euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen zaie.

Udaleko kargu politikoek, udal teknikariek eta hirigintzako plana idazten parte hartzen duten teknikariek euskaraz nahiz gazteleraz egingo dute euren ahozko jarduna, euskararen erabilera normaltzeko udal ordenantzako 18. eta 24. artikuluetan jasota dagoena bermatzeko.

20. artikulua. Bozketak.

1. Bozketak, oro har, ohi bezala egingo dira. Batzordearen Osoko Bilkurak erabaki dezake gai batzuetarako izenezko bozketa edo sekretua egitea.

2. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izango da, baina abstenitzeko aukera ere egongo da.

3. Botoa garbi eta ozen emango da eta ezingo da eginkizun hori beste batzordekide baten esku utzi.

4. Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira.

5. Bozketan berdinketa gertatuz gero, beste bat egingo da, eta bigarren horretan berdinketa hausten ez bada, batzordeko lehendakariak erabakiko du kalitatezko botoaz baliatuz.

6. Bozketari ekin aurretik, batzordeko lehendakariak argi eta zehatz adieraziko du zer bozkatzen den eta botoa nola eman behar den.

7. Bozketa amaitzean, botoak idazkariak zenbatuko ditu eta emaitza adieraziko du ozenki. Ondoren, lehendakariak hartu den erabakia emango du aditzera.

8. Idazkariak erabakiak jasotzen dituen txostena egingo du eta hura dagokion hirigintza-espeditera bilduko du. Erabaki horiek izan ditzakete hirigintza-antolaketa proposamen edo hautabide zehatzak, udalarentzat lotesle ez direnak.

21. artikulua. Lan-batzordeak.

1. 6. artikuluan xedatzen den bezala, Aholku Batzordearen helburu eta eginkizunekin zerikusia duten unean uneko gaiak jorrazteko lan-batzordeak osatu daitezke, batzordearen gehiengoak beharrezkotzat joz gero.

2. Aholku Batzordeak finkatuko du lan-batzorde horien osaera, izena eta funtzionamendua.

3. Lehendakaritzak beharrezko –edo egoki– jotzen duen udal-aholkularitza teknikoa eskatuko du, baita kanpoko aholkularitza ere.

4. Aztertutako gaien eta atera dituzten ondorioen berri emango diote lan-batzordeek Aholku Batzordeari.

22. artikulua. Funtzionamenduko barne arauak.

Aholku Batzordeak funtzionamenduko barne-arauak ezar ditzake eta lan-taldeak eratu haiei jarraiki, betiere araudi honetan ezarritakoa errespetatuz.

23 artikulua. Lekua eta aktak.

Aholku Batzordearen bilkurak udal-aretoetan egingo dira, txandaka barruti bakoitzean, eta bilkura horietako bakoitzaren akta egingo du idazkariak. Akta hori hamabost laneguneko epean bidaliko zaie batzordekideei, eta egiten den hurrengo bilkuran onartu beharko da.

Udal Ordenantzaren 11. artikuluari jarraiki, Aholku Batzordeko aktak bi hizkuntza ofizialetan bidaliko zaizkie batzordekideei.

24. artikulua. Bitartekoak atxikitzea.

Hirigintza eta hiri berritze gaietan eskumenak dituen udal sailak emango ditu hari atxikia egongo den Aholku Batzordeak behar bezala funtzionatzeko beharko dituen giza eta bestelako baliabideak. Udal aurrekontuak kontu-sail bat izango du batzordeak sustatzen dituen jarduerak garatu daitezen

V. TITULUA

ESKU HARTZEKO BESTELAKO EKIMENAK

25. artikulua. Informazio Batzordeetako parte hartzea.

Elkarteen Udal Erregistroan inskribatuak dauden elkarteek, hala eskatzen badute, Hirigintzako Informazio Batzordera deituak izan daitezke gai zerrendako punturen baten gainean haien iritzia edo txostena jasotzeko. Gaiak ere proposa ditzakete gai zerrendan sartzeko, lehendakariari Batzordea egin baino astebete aurretik bidalita, hark zerrendan sar ditzan.

26. artikulua. Herri-kontsulta.

Udalbatzak gehiengo osoz onartu ondoren eta Tokiko Araubideko Oinarrien Legeko 71. artikuluan ezarritakoa betez, alkateak herri-kontsultara deitu dezake herritarrek beren iritzia azal dezaten hirigintza aldetik garrantzi berezia duten gaietan edo oso eztabaidatuak direnetan.

Akordioa gehiengo osoz harturik, Aholku Batzordeak erabaki dezake txostena egiteko aurkeztu zaion gairen batek betetzen dituela aurreko paragrafoan erreferendumerara deitzeko ezartzen diren baldintzak.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan espresuki aurreikusten ez denerako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluaren xedatutakoaren arabera funtzionamendua eta jarduna izango du Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordeak. Gainerako xedapenetan, berriz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezartzen duenari eta Tokiko Erakundearen Antolamenduko, Funtzionamenduko eta Araubide Juridikoko Erregelamenduak (2.568/1986 Errege Dekretuak) xedatzen duenari jarraituko zaio.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Araudi honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezko aginduak emateko ahalmena emango zaio batzordeko lehendakariari.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Herritarrek udal bizitzan nola parte har dezaketean arautzen duen arau honek izaera organikoa du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.bis artikuluan aurreikusitakoari jarraiki. Hirigintza eta Ingurumen gaietarako Aholku Batzordea Udaltzaren erabakiz deuseztuko da indarrean den legeriari jarraiki.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da, Udalak behin betiko onarpena eman, testua osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost laneguneko epea amaitzen denean, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 65.2 artikuluekin erlazionatua dagoen 70.2.an adierazten denari jarraiki.